

Sozialisten eta komunisten arteko haserrealdiaz

Hastapenean ukatua, edo txiki-etsia bederen, gaur izkutatu zinezko bihurtu da sozialisten eta komunisten arteko etendura. Eta, egia hauxe dela jator aitortu ondoren, gerorako ondorioak ateratzen hasteko garaia heldu zaigu.

Haserrealdi berri honen funtsa edo sustraia aztertu behar da aurrenik. Behin eta berriz esan beharra dago, gure artean politika-gune horretantxe sortzen diren gorabeherak eta etendurak (marxista-leninisten eta sozialisten artekoak alegia) ez direla, gutxitan baizik, norberien eta abileziarik ezaren ondorio. Ez eta ez. Euskal Herrian ere, beste edonun bezala, badaude interesen eta helburuen arteko etsaigoak eta aurkatasunak; eta, beraien kontra, handiak eta maltzurak direlarik ere, ezer gutxi egin dezakete gizonak. Gizona-ekin ezak horixe ditu bere mugak; hau da, gauzen eta gertakarien halaberharrean, baldintzapenen gauzatasun edo «objektibotasun» horretan.

—oO—

Frantzia, hasteko, iaz Ezker Batuak agintea ia-ia eskuratu ondoren (13 milioi boto, % 49,7), orain egunero ageri dira, prentsa eta irratia zabaldurik, komunistentz sozialisten kontra botatzen dituzten erasoak. Gaur arte (Paueko Biltzar Nagusia baino lehenago honetan, beraz) sozialistek ez dute erantzunik eman nahi izan. Noiz arte ho-

rrera, ordea? Aurki amaituko bide da isilaldi luze eta baketsu hau. Eta orduan gauza bat agertuko da garbiki: Ezker Batua-renak egin duela; eta sozialismoa ez dela biharko Frantzia. Komunistentz, noski, badakite hau; eta azalpena barnago behar da bilatu, hortaz.

Portugalen, berriz, zer gertatze ari da? Zalantza irudi dakioke zenbait Spinolaren iritzia. Baina atzerrian, Parisen zehazki, urte askotan bizi izan den Mario Soares sozialista buruzagiaren iritziaz, zer esango? Hots, Soares arrunt dago geroaz kezkatuta; eta argi eta garbi aitortu die, Urtarrilaren 16an, Sozialista Alderdiak bere 20.000 bilzarkideei: «Komunista Alderdiak demokraziaren joko errespetatzen ez badu, ikaragarriko zorritzar bat gertatuko da Portugalen». Bide berberetik mintzatu zaie Salgado Zenha ministroa, sozialista hau ere. Kezka-eren iturburu hau da: «le Parti Communiste —d i o ahobatez prentsa guztiak— en quelques mois a su s'implanter partout, et à tous les niveaux». Armadaren laguntza duelarik, eta sozialisten kontra erasoaldi gogorrean abiatua delarik, nola ez beldur izango? Cunha-ren alderdiak badaki, halere, Kondairak erakutsi duenez, sozialisten laguntza galtzekotan, amerikatarrek berehala suntsituko lituzketela kastrismoak oro, eta alderantziko Praga bat ezinezkoa dela. Allenderen saioa legetasunaren itzalean CIA-k ez badu

mamitzera utzi, are zailago dirudi komunista bakarren agintarritza bat Lisboan sortzera uztea! Pozgarria ez bada ere, ageria da hala dela. Portugal-go komunistentz, hitz batez, zaputuz egiten diote aginteari, Frantzia-koek bezalatsu. Gaur gaurkoz utzi egin nahi bide dute agintea alde batera.

—oO—

Hitz batez: 1975eko hasera honetan Europako komunistentz ez bide dute agindu nahi. Zergatik ez? Hortxe dago aztertu beharra. Jokabide horren itxuskeriaz-eta mintzatea alferriko kalaka litzateke.

Kakoa marxisten pentsakera-munduan bilatu behar da, eta ez gurean. Ekonomi-arazo larriren bat aurkitu behar da, beraz.

Eta arazo hori oso ezaguna da: petrolioarena. Petrolioaren eskasiak (eta kapitalismoaren anarkiak ekarri duen mukurreria burugabea: noiz arte sal zitekeen gero eta berebil gehiago, esate baterako?) industri-geidialdi bat ekarriko du; geldialdi horretan krisi handi batek ikutuko du kapitalismoa; eta, urte gogor horietan, onena kapitalismoa bakarrik eta bere buruz erortzera, hondatzera eta porrokatzera behar da utzi. Orain, kapitalismoa desegin arte honetan alegia, utikan!: gobernu «burgese»-etan parte hartzeak ez luke bururik ez hankarik. Beraz, edo komunista-agintea osoki, komunista hutsen eskuetan (sozia-

listak ez baitira «burgesen morroin leialak besterik»); edo-ta, bestela, gobernutik at hobe.

Portugalen ia-ia hitz hauetxek erabiltzen dituzte gaur komunistentz. Sozialistek inolaz ere onartuko ez duten sindikato bakarra eskatu dute, esate baterako.

Komunisten gogor-aldi hau, jakina, maila guztietan ari da nabarmentzen. URSS-ak eta Txekoslovakia ia batera deuseztatu dute USA-rekin zuten tratua. Eta gisa da hala izatea; zeren-eta komunistentz ez baitute tamaina horretako jokabide larri bat arinki hartzen, edo herriera eta desordenuan. Komunistentz, sozialistek baino areago, batera hartzen dituzte estrategi-bide nagusi horiek, mundu guztiari buruz batera; eta jokabideen batasun horren zantzuak edo lehen

aztarrenak laster nabaituko ditugu guk ere Euskal Herrian. Euskaldun komunistentz zakarra- go jarriko zazkigu; eta marxista «liberalak» aurki suntsituko dira. «Gudu hotzaren» girora bide goaz berriro, stalinismoaren garraian bezala.

Ezker Batuaren garaia, 1950 haieran bezala, pasea bide da oraingoz; eta Mitterrand eta Allende «Pront Populaire» haien pareko izango dira gurean, 1948-an bezala.

—oO—

Zer egin giro horretan? Zer estrategia har sozialistek? Horra hor zinez geure buruari egin behar diogun galdera bakkarra.

LARRESORO

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Irratzikifia: 41 20 65

DONOSTIA

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA

UGARTE

Urbietan, 66

DONOSTIA

Aurreratutako milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat jasoko du, eta baita 5.000 pezetako saldo bakoitzagatik ere milla pezeta sartzen baldin baditu.

Vista eta Epe Jakiñeko laminak zabaltzen dituenari, zenbaki bat emango zaio sartzen dituen milla pezeta bakoitzeko.

Bai lamina bai libretako saldoaren zenbakiak zozketa epe barruan bein bakarrik emango dira. Epe horren barruan egiten diren gaiñontzeko diru sarrerak ez dira gogoan artuak izango saldo zenbaki aldetik.

Txartela eskuratzen baduzu etxea eskura dezakezu



**3 ETXE
BIZITZEN LEEN
ZOKETA**

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

